



LEHIAKETAN PARTE HARTZEKO OINARRIAK

“Asteburu bat Zuhatzako Aterpetxean 6 pertsonentzat”

1. ANTOLATZAILEA

Sustapen-ekintzen antolaketa Arabako Foru Aldundiko Gazteriaren Institutuak bultzatzen du, helbidea Joaquín José Landázuri kalea 3, 01008 Vitoria-Gasteiz (Araba) duena, eta NIF zenbakia P5100001F duena.

2. LEHIAKETAREN HELBURUA

Helburua Arabako landa-eremuetako gazteen iritziak eta errealitateak ezagutzea da, hezkuntza eta prestakuntza, zerbitzuak, parte-hartzea eta emantzipazioari dagokienez, baita haien beharrak ere.

3. OINARRIEN ONARPENA

Parte hartze hutsak oinarri hauek osorik onartzea dakar. Horiek ez onartzeko adierazpenak parte-hartzailea lehiaketatik kanpo uztea ekarriko du, eta, ondorioz, antolatzaileak ez du lehiakide horrekiko inolako betebeharririk izango. Saria onartzean, irabazleak promozioan berariaz jasotako gastuak izan ezik, sortzen diren gastu guztiak bere gain hartuko ditu, baita saria jasotzeak eta erabiltzeak eragin ditzakeen erantzukizunak ere. Irabazleak berak ordaindu beharko ditu sortutako zergak eta oinarri hauetan espresuki aipatzen ez diren bestelako gastuak.

4. ZOZKETAREN HASIERA ETA AMAIERA DATAK

Sustapenaren hasiera eta amaiera datak hauek dira: 2025eko apirilaren 1etik 21ra. Lehiaketa @Lurrikaraba Instagram sare sozialean egingo da, oinarri juridiko hauen arabera.

5. PARTE-HARTZAILEAK

Doan eta borondatez parte har dezakete 18 eta 30 urte bitarteko pertsona fisikoek, baldin eta Arabako herriren batekoak badira.

IFJko langileek ezingo dute parte hartu. Hala gertatuz gero, antolatzaileak parte-hartze horiek automatikoki baztertuko ditu. Parte-hartzaileen nortasuna agiri ofizialen bidez egiaztatu beharko da.



Antolatzaileak ez du bere gain hartzen parte-hartzaileek emandako datuen egiazkotasuna, ezta parte-hartzaileekin edo irabazleekin harremanetan jartzeko ezintasuna ere, datu okerrak edo akatsak egonez gero.

Lehiaketa burutu ezin bada iruzurrak, akats teknikoak edo antolatzailearen kontroletik kanpoko beste edozein arrazoi direla eta, IFJk lehiaketa bertan behera uzteko, aldatzeko edo eteteko eskubidea izango du. Era berean, lehiaketaren mekanika eta sariak egokitzeko edo eranskin berriak gehitzeko aukera izango du, betiere parte-hartzaileei behar bezala jakinaraziz.

6. SARIA

Saria asteburuko egonaldia da, gehienez ere 6 pertsonako talde batentzat (lehiaketako irabazlea + berak aukeratutako 5 lagun), Arabako Foru Gazteriaren Institutuaren Zuhatza aterpetxean.

IFJk ez du bere gain hartuko saritik eratorritako ondorioen erantzukizuna. Saria ezin izango da diru bihurtu edo beste sari batekin ordezkatu. Salmenta edo hirugarren bati lagatzea ez da onartzen.

7. ZOZKETAREN MEKANIKA

Apirilaren 1etik 21ra bitartean, zozketan parte hartu nahi dutenek honako baldintza hauek bete beharko dituzte:

- @Lurrikaraba Instagram kontuaren jarraitzaile izatea.
- Profilaren deskribapenean agertzen den inkesta betetzea.
- Zozketaren Instagrameko publikazioan gutxienez hiru lagun aipatzea.

Zenbat eta iruzkin gehiago egin lagunak aipatuz, hainbat aukera gehiago izango dira irabazteko, zozketa iruzkinen artean egingo baita.

8. SARIAREN BANAKETA

Comment Picker plataformaren bidez, iruzkin irabazlea ausaz hautatuko da, eta erabiltzaileak parte hartzeko baldintzak bete dituela egiaztatuko da. Inkesta egin ez bada edo adin-baldintzak edo Arabako herriren batekoa izatea betetzen ez badira, zozketa berriro egingo da.

Parte-hartzaile nahikorik ez balego edo beste edozein arrazoiengatik, antolatzaileak lehiaketa bertan behera uzteko eskubidea izango du.

Parte-hartzaileek baimena ematen dute beren Instagram izena Lurrikaraba sare sozialetan argitaratzeko. Irabazleak lehiaketako arauak urratzen baditu edo ez bada epearen barruan aurkitzen, beste zozketa bat egingo da.



Lehiakideek ezin izango dute lehiaketako parte-hartze profilaren irudietan moralaren, etikaren edo legediaren aurkako edukiak argitaratu.

9. IRABAZLEAREKIN HARREMANETAN JARTZEA

Irabazlea apirilaren 23an, 14:00etan iragarriko da Lurrikaraba Instagram kontuaren bidez. Irabazleak apirilaren 25eko 14:00ak arte izango du antolatzailearekin harremanetan jartzeko. Hala egiten ez badu, beste zozketa bat egingo da.

10. INSTAGRAM-ENGANDIK BEREIZTEA

Lehiaketaren antolatzailea Arabako Foru Aldundiko Gazteriaren Institutua da, eta Instagram-ek ez du inolako loturarik lehiaketaren kudeaketa eta sustapenarekin. Parte-hartzaileek emandako informazio guztia antolatzaileari emango zaio, eta ez sare sozialari.

11. JABETZA INTELEKTUALAREN ESKUBIDEAK

Antolatzaileak lehiaketa irabazleen eta parte-hartzaileen izenak eta irudiak publizitate helburuetarako erabiltzeko eskubidea gordetzen du, egokitzat jotzen dituen komunikabideetan, aurretiazko jakinarazpenik gabe.

12. DATU PERTSONALAK

Datu Pertsonalen Babesari buruzko Erregelamendu Orokorren eta Informazio Gizartearen Zerbitzuen eta Merkataritza Elektronikoen Legearen arabera, parte-hartzaileei jakinarazten zaie emandako datu pertsonalak antolatzailearen datu-basean gordeko direla. Parte-hartzaileek beren datuak eskuratzeko, zuzentzeko, aurka egiteko edo ezabatzekeo eskubidea izango dute, tratamenduaren arduradunari helbide elektronikoko honetara idatziz eskatuz: ifj@araba.eus.